



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko irailaren 29a

82. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

A SAILA:

**Foru lege proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, 2009-2012 eperako toki inbertsioen planari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

F SAILA:

**Galderak:**

—Galdera, transplanteei eta ehunei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).

—Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak 2007an dirulaguntzarik edo inolako laguntzarik eman dion Fundación Navarra para la Diversificación Empresarial fundazioari eta, halaber, jakiteko asmorik duen aipatu fundazioari 2008an laguntzarik emateko. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

## **Foru Lege proiektua, 2009-2012 eperako toki inbertsioen planari buruzkoa.**

### **AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 129. artikuluan ezarritakoa betez, 2009-2012 eperako toki inbertsioen planari Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proiektu hori 2008ko uztailaren 4ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko irailaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **1. ZUZENKETA**

#### **NAFARROA BAI**

##### **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“3. Toki Inbertsioen Plana osatzen dute ondo-koetan aurreikusten diren inbertsioek:

- a) Toki programaziokoa.
- b) Ingurumen-garapeneko plana.
- c) Zeharbideak urbanizatzekoak.
- d) Libreki erabakitakoak”

Zioak: Legeko 2. artikulua kentzea proposatu dugunez –plan zuzendariei buruzkoa–, testua egokitzea, eta beste plan bat sartzea, ingurumen-garapeneko hain zuzen.

### **2. ZUZENKETA**

#### **NAFARROA BAI**

##### **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikuluko 4. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

##### Lehen lerrokadan:

“4. Aurreko inbertsio planean (...) ondoko obrak finantzatzeko eskualde behartsuetarako plan berezi bat ezarri da”

##### Bigarren lerrokadan:

“..obrak finantzatzeko plan bereziari esker...”

##### Hirugarren lerrokadan:

“Finantzaketa-plan berezi horretan...”

Zioak: “Araubide berezi” izena ordeztu eta orain arte erabilitakoa utzi; horretan, gainera, lehentasun berezia emanen zaie defizita batez bestekoa baino handiagoa duten guneei. Legeko 2. artikulua kentzea proposatu dugunez –plan zuzendariei buruzkoa–, testua egokitzea.

### **3. ZUZENKETA**

#### **NAFARROA BAI**

##### **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

2. artikulua (plan zuzendariak) kentzeko zuzenketa.

Zioak: Plan zuzendarien helburua da oinarrizko zerbitzuak ematea eta toki entitate guztientzat komunak diren zerbitzuak ematea. Zerbitzuon gauzatzeak eta bermeak ez du toki entitateen esku egon behar. Nafarroako Gobernuak bere gain hartu behar du, erabat, plan zuzendarien exekuzioa eta ez du hipotekatu behar udalen eta/edo kontzejuen etorkizun ekonomikoa.

### **4. ZUZENKETA**

#### **NAFARROA BAI**

##### **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Artikulu berri bat, 3. bis artikulua, gehitzeko zuzenketa. Hau da proposatzen den testua:

“3. bis artikulua. Ingurumen-plana.

Ingurumenaren plan berri bat sartu da, udalerrietan jarduerak kaltetutako eremu, gune edo tokiak lehengoratzeko proiektuei aurre egiteko helburuarekin. Plan honetan aurkeztu ahalko dira, halaber, udalen ekimen publikoak, euren udalerr-

an dauden habitaten edo espezieen hobekuntza eta ingurumen-babesa helburu dutenak.

Honakoak hartuko dira udalerrriaren ingurumena mantentzeko jarduketatzat : hondakindegia eta legez kanpoko zabortege gisa erabilitako tokiak garbitu eta lehengoratzeko jarduketak, ibaiertzak lehengoratzeko jarduketak, ur baliabideen, erreken, baltsen eta abarren mantentze-lanak, eta mantentze ekologikorako eta suteen prebentziarako baso eta mendietan gauzatutako saneamendu programak”

Zioak: Gure gizartearen bilakaerak kaltea eragiten du gure herrien ingurumenean. Gizakion eta ekonomiaren jarduera kalte dezentekoa eragiten ari zaio ingurumenari, eta ingurua, horrela, hondatzen ari da pixkanaka-pixkanaka.

Landa-inguruetan, jendea gutxitzen ari da, lehen sektorea behera doa eta basoak ez dira zaintzen. Hori horrela, tokian tokiko jarduketa-planak behar dira, ingurumen-osasuna eta bioaniztasuna bermatzeko, gure herrien aberastasuna baita.

## 5. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

5. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“3. Udalek edo kontzejuek inbertsioei aurre egiteko berezko baliabide nahikorik ez dutenean, libreki erabakitako inbertsioetarako funtsetan zer partaidetza izanen duten kalkulatu da, hain zuzen, funts horietan eskuragarri dagoen diru zenbatekoari banaketa-irizpide hauek aplikatuz:”

Zioak: Ez du zentzurik diru-esleipen lineal bat besterik gabe populazioaren arabera egiteak; dirua beharraren arabera esleitzeko irizpideak ezarri behar dira.

## 6. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

6. artikulua (ohiz kanpoko plana) kentzeko zuzenketa.

Zioak: Plan honetan jasotzen diren beharrak dira helburua dutenak oinarritzko zerbitzuak ematea eta, hala badagokio, banakako defizitaren gehieneko kalifikazioa dutenak, eta exekutatu

ezean helburu hori lortzea benetan zaila dutenak, halako moduz non, horren ondorioz, lurraldeen arteko desorekak sor baitaitezke. Behar horiek, horrenbestez, ohiko planean jaso behar dira.

## 7. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

9. artikuluko 2. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ezinbesteko arrazoiek edo aurreikusitako ezineko arrazoiek eragin litzaketan jarduketak Nafarroako Gobernuak hartuko ditu bere gain, eta horrek ez du eraginik izanen plan honetarako kontusailean.

## 8. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

11. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

1. idatz-zatia aldatzea proposatzen da. Honela geldituko litzateke:

“Toki entitateek programatu beharreko azpiegitura obrak, haiek eskatutakoak, Azpiegituren Planean sartzeko, hautatze eta leheneste formula hau ezarriko da:

$$HLK = 0,75 \text{ ADI} + 0,15 \text{ TPADO} + 0,005 \text{ IE} + 0,05 \text{ KTB}$$

Azalpena:”

Zioak: Errentagarritasunaren ordeztu, azpiegitura defizit orokorren eta indibidualen garrantzia areagotu.

## 9. ZUZENKETA

### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK ETA NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Foru legeko 11. artikulua (obrak hautatu eta lehenesteko prozedura) aldatzeko zuzenketa. Inbertsioak biztanle bakoitzeko zer errentagarritasun duen adierazten duen koefizientea kalkulatzeko, batez besteko kostuen taula bat dago; aldaketak, hain zuzen ere, taula horretan jasotako biztanle kopuruari dagokio.

Ondokoa dio:

Biztanleen kopuruak								
Biztanleak	50 arte	50-200	200-500	500-1.000	1.000-1.500	1.500-2.000	2.000-3.000	3.000-300.000

Honakoa behar du:

Biztanleen Kopuruak								
Biztanleak	50 arte	51-200	201-500	501-1.000	1.001-1.500	1.501-2.000	2.001-3.000	3.000 baino gehiago

Zioak: Guztiz bat etortzea proiektuko 5. artikuluko 3. idatz-zatiarekin, non libreki erabakitako inbertsioetarako funtsak banatzeko irizpideak ezartzen baitira, eta biztanle kopuru bera ez egotea bi tartetan.

## 10. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

11. artikuluari 5. idatz-zatia gehitzeko zuzenketa.

“5.1. Ingurumen planean sartuko diren proiektuak hautatu eta lehenesteko, formula hau erabiliko da:

$$IHPLK = 0,40 EHP + 0,20 HM + 0,40 IB$$

Azalpena:

IHPLK: ingurumena hobetzeko proiektuen leheneste-koefizientea.

EHP: esku-hartzearen premia neurtzen duen indizea.

HM: hondatze-maila neurtzen duen indizea.

IB: ingurumen-balioa neurtzen duen indizea.

5.2. Koefizienteok 0tik 10era bitartekoak izanen dira, eta nola kalkulatu diren –prozedura eta irizpideak– erregelamenduz ezarriko da.”

Zioak: Ingurumen-plan berriarekin (3. bis artikulua) zerikusia duten proiektuak hautatzeko eta lehenesteko modu bat ezartzea.

## 11. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

12. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“a) Toki entitateek programaturiko azpiegiturak:

Plan zuzendarietan sartu gabeko uraren goi-hornidurak: 100eko 90

Hornidurako sare lokalak: 100eko 80

Argiteria publikoa: 100eko 80

Zoladura ematea: 100eko 70

Udal eraikinak: 100eko 70

Hilerriak: 100eko 70.

Herrietako bideak: 100eko 70

b) Ingurumen-plana: 100eko 70

c) Zeharbideen urbanizazioa: 100eko 70”

Zioak: Legeko 2. artikulua kentzea proposatu dugunez –plan zuzendariei buruzkoa–, bai eta ingurumen-plana sartzea ere, testua egokitzea; bestalde, finantzaketaren ehunekoak handitzea, halako moduz non udalek ez dezaten proiekturik baztertu behar izan zergatik eta ezin diotelako aurre egin finantzaketaren bere zatiari.

## 12. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

13. artikulua aldatzeko zuzenketa.

A) letra kentzea, plan zuzendariei buruzkoa baita.

Zioak: Legeko 2. artikulua kentzea proposatu dugunez –plan zuzendariei buruzkoa–, testua egokitzea.

### 13. ZUZENKETA

#### NAFARROA BAI

##### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

14. artikulua (larrialdiko prozedura) kentzeko zuzenketa.

Zioak:

Ezinbesteko arrazoiek edo aurreikusi ezineko arrazoiek eragin litzaketan jarduketak Gobernuak hartuko ditu bere gain, eta horrek ez du eraginik izanen plan hau xede duen kontusailean.

### 14. ZUZENKETA

#### NAFARROA BAI

##### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

17. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“2. Zeharbideen urbanizazioari dagozkien jarduketetan...”

Zioak: Legeko 2. artikulua kentzea proposatu dugunez –plan zuzendariei buruzkoa–, testua egokitzea.

### 15. ZUZENKETA

#### NAFARROA BAI

##### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa.

Bigarren lerrokada kentzea proposatzen da:

Zioak: Legeko 2. artikulua kentzea proposatu dugunez –plan zuzendariei buruzkoa–, testua egokitzea.

### 16. ZUZENKETA

#### NAFARROA BAI

##### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Laugarren xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ekarpen ekonomikoak ez dira soilik biztanle kopuruaren arabera mugatu behar; gaitasun ekonomikoa ere kontuan hartu behar da.

### 17. ZUZENKETA

#### NAFARROA BAI

##### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

III. eranskina aldatzeko zuzenketa.

(eurotan)	2009. urtea	2010. urtea	2011. urtea	2012. urtea	Guztira
a) Toki programazioa					
A.1) Araubide orokorra					
Plan zuzendarian sartu gabeko ur hornidura	90.000	150.000	150.000	150.000	540.000
Hornidurako eta saneamenduko sare lokalak	4.000.000	7.000.000	7.000.000	7.000.000	25.000.000
Argiteria publikoa	1.000.000	2.500.000	2.500.000	2.500.000	8.500.000
Sarez hornitu eta zoladura ematea	5.000.000	12.000.000	12.000.000	12.000.000	41.000.000
Sare gabe zoladura ematea	1.000.000	4.500.000	4.500.000	4.500.000	14.500.000
Udal eraikinak	1.500.000	2.800.000	2.800.000	2.800.000	9.900.000
Herrietako bideak	900.000	1.300.000	1.300.000	1.300.000	4.800.000
Hilerriak	700.000	1.100.000	1.100.000	1.100.000	4.000.000
Honaino, guztira	14.190.000	31.350.000	31.350.000	31.350.000	108.240.000
A.2) Plan berezia					
Plan zuzendarian sartu gabeko ur hornidura	120.000	180.000	180.000	180.000	660.000
Hornidurako eta saneamenduko sare lokalak	1.000.000	2.000.000	2.000.000	2.000.000	7.000.000
Kaleko argiteria	400.000	500.000	500.000	500.000	1.900.000
Sarez hornitu eta zoladura ematea	1.000.000	2.500.000	2.500.000	2.500.000	8.500.000
Sare gabe zoladura ematea	500.000	900.000	900.000	900.000	3.200.000
Udal eraikinak	500.000	700.000	700.000	700.000	2.600.000
Honaino, guztira	3.520.000	6.780.000	6.780.000	6.780.000	23.860.000
B) Ingurumen-garapeneko planekoak	4.000.000	4.300.000	4.600.000	5.000.000	17.900.000
C) Zeharbideak					
Zeharbideen urbanizazioa	1.200.000	2.200.000	2.300.000	2.300.000	8.000.000
D) Libreki erabakitakoak					
Libreki erabakitakoak	40.891.884	24.924.054	30.773.018	37.195.290	133.784.246
GUZTIRA	63.1801.884	69.554.054	75.803.018	82.625.290	291.784.246

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, transplantei eta ehunei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak galdera egin du transplantei eta ehunei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko maiatzaren 23ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak galdera egin du transplanteekin eta ehunekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Osasun konseilariaren erantzuna:

1.- Sustapenerako egin diren ekintza dokumentatuak

- Ondoko hauek editatu eta banatu dira:

- Donazioa sustatzeko triptikoak.

- Helduei doluan laguntzeko triptikoak.

- Haurrei doluan laguntzeko triptikoak.

- Zilbor-hesteko odolaren donazioa sustatzeko triptikoak.

Argitaratutako material guztia gaztelaniaz eta euskaraz dago.

- Donazioak sustatzeko asmoz Estatuko Transplanteen Erakundeak (ONT) prestatzen duen materiala banatzea: liburuxkak, posterrak, bideoak... ONTk hizkuntza ezberdinetan argitaratzen ditu material horiek, eta azken urtean etorkinei zuzendu dizkie.

- Hitzaldiak:

- Ikastetxe publiko eta pribatuetan.

- Gizarte etxeetan: Civivox, Civican.

- Unibertsitate publikoan eta pribatuan.

- ADONA eta ALCER elkarteek donazioa sustatzeko xedearekin egiten dituzten jarduerak diruz laguntzea, orientatzea eta horietan parte hartzea.

- Aldian-aldian bilerak egiten dira komunikabideekin datu eta txosten ezberdinak aurkezteko, komunikabideetan presentzia iraunkorra mantentze aldera.

2.- Ekintza dokumentatuak osasun arloko profesionalen prestakuntzarako

Hona hemen 2007an egin diren irakaskuntza jarduerak:

- Sendagile-koordinatzaile, auzitegiko mediku eta epaileentzako ikastaroa. 2007ko ekainean egin zen, Santanderren, eta bi pertsona joan ziren.

- Transplantei eta ehunen donazioari buruzko ikastaroa. 2007ko martxoan egin zen, Oviedon, eta bi pertsona joan ziren.

- Komunikabideei eta koordinatzaileei buruzko ikastaroa. 2007ko ekainean egin zen, Zaragozan, eta bi pertsona joan ziren.

- Donazioen eta transplanteen alorreko azken aurrerapenei buruzko ikastaroa. 2007ko urtarrilean egin zen, Huescan, eta bost pertsona joan ziren.

- Organo eta ehunen donazio eta transplanteari buruzko ikastaroa. 2007ko otsailean egin zen, A Coruñan, eta bi pertsona joan ziren.

- Koordinatzaileen prestakuntzarako ikastaro trinkoa. 2007ko irailean egin zen, Alacanten, eta bi pertsona joan ziren.

- Donazioa areagotzeko teknikei buruzko ikastaroa. 2007ko irailean egin zen, Granadan, eta bi pertsona joan ziren.

- Zilbor-hesteko odolaren donazioari buruzko jardunaldi trinkoa. 2007ko urtarrilean egin zen, Madrilan, eta hiru pertsona joan ziren.

– Peruko medikuntza intentsiboko elkartearen nazioarteko biltzarra (SOPEMI). 2007ko ekainean egin zen, Liman, eta pertsona bakarra joan zen txostengile gisa.

– Medikuntza intentsiboaren VIII. biltzar panamerikarra. 2007ko azaroan egin zen, Uruguain, eta pertsona bakarra joan zen txostengile gisa.

– Donazio eta transplanteen ikastaroaren antolaketa, oinarritzko osasun laguntzako mediku eta erizainei zuzendua. 2007ko martxoan egin zen, Iruñean, eta 20 pertsona joan ziren.

– Informazio bilerak, zilbor-hesteko odolaren donazio programa abiarazteko. 2007ko irailean eta urrian egin ziren, Iruñean, eta 30 pertsona joan ziren.

### 3. Kreditatuta dauden osasun zentroak

#### => **Nafarroako Ospitalea:**

- Ehun osteotendinosoaren bankua.
- Ehun osteotendinosoa txertatzea.
- Korneak txertatzea.
- Mintz amniotikoaren erabilera.
- Giza jatorria duten bihotz-balbulak txertatzea.
- Giza jatorria duen ehun baskularra txertatzea.
- Hezur-muina autotransplantatzea.

#### => **Bideko Ama Birjina Ospitalea:**

- Kornea-bankua.
- Korneak txertatzea.
- Mintz amniotikoaren erabilera.

#### => **Ubarmin Klinika:**

- Ehun osteotendinosoaren bankua.
- Ehun osteotendinosoa txertatzea.

#### => **García Orcoyen Ospitalea:**

- Ehun osteotendinosoa txertatzea.

=> Reina Sofía Ospitalea:

- Ehun osteotendinosoa txertatzea.

#### => **Nafarroako Klinika Unibertsitarioa:**

- Ehun osteotendinosoaren bankua.
- Kornea-bankua.
- Mintz amniotikoaren bankua.
- Ehun baskularren bankua.
- Bihotz-balbulen bankua.
- Ehun osteotendinosoa txertatzea.
- Korneak txertatzea.
- Mintz amniotikoaren erabilera.
- Giza jatorria duen ehun baskularra txertatzea.
- Giza jatorria duten bihotz-balbulak txertatzea.
- Autotransplante eta txertatze alogenikoa, guraso hematopoietikoa dituzten emaleena.

#### => **San Miguel Klinika:**

- Ehun osteotendinosoa txertatzea.
- Korneak txertatzea.

#### => **San Juan de Dios Ospitalea:**

- Ehun osteotendinosoa txertatzea.



**BAIMENDUTAKO ZENTROEN JARDUNA 2007an:**

	<b>Bideko Ama Birjina Ospitalea</b>	<b>Nafarroako Klinika Unibertsitarioa</b>	<b>Nafarroako Ospitalea</b>	<b>Ubarmin Klinika</b>
<b>KORNEAK</b>				
Benetako emaleak	39	9	-	-
Erauzitakoak	78	-	-	-
Transplanteak	13	10	-	-
Beste autonomia erkidego batzuetara bidalitakoak	53	-	-	-
Nafarroatik bidalitakoekin beste autonomia erkidegoetan eginiko transplanteak	66	-	-	-
Ikerkuntzara bideratuak	16	-	-	-
<b>ESKELETO-GIHARRA</b>				
"Bizirik" dagoen hezurra	-		186	
"Hilik" dagoen hezurra	-		31	
Transplantatutakoak	-		150	
<b>HEZUR-MUINA</b>				
Odol periferikoa	-	34		-
Ahaideak	-	1		-
Haurra	-	1		-
<b>BALBULAK</b>				
Erauzitakoak	-	3	-	-
<b>MINTZ AMNIOTIKOA</b>				
Erauzitakoak	3	-	-	-

Jarduteko baimenaren indarraldia lau urtekoa da, azaroaren 11ko 1301/2006 Errege Dekretuan xedatutako epearen barnean. Dekretu horren bidez, kalitate eta segurtasun arauak ezartzen dira giza zelulak eta ehunak eman, lortu, ebaluatu, prozesatu, zaindu, gorde eta banatzeko, eta horiek gizakiekin erabili ahal izateko koordinazio eta funtzionamendu arauak onesten dira.

Osasun Departamentuak informazioa igortzen dio Estatuko Transplanteen Erakundeari, eta erakundeak eskatutako maiztasunarekin eta zehaztasun guztiekin egiten du. Informazio hori, gaur egun, banku guztietatik eransten da eta urtero igortzen da.

4.- Aplikatzen diren tarifak dira Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak urtarrilaren 13an emaniko 62/2006 Ebazpenean ezartzen direnak. Horiek 2006ko apirilaren 14ko 45. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

Ez da inolako zordunketarik egiten osasun zentro publikoen artean.

Gaur egun, ez dago informazio sistema zentralizaturik jarduera horien mantentze kostuak jasotzen dituenik.

5. Baimendutako zentro bakoitzak prozedura-eskuliburu bat dauka, 1301/2006 Errege Dekretuaren II. eta III. Eranskinetan ezarritako irizpideak betetzen dituena.

Estatuko Transplanteen Erakundea kalitatearen kudeaketarako programaren zati bat bateratzen ari da, zehazki ondoko hauei dagokiena: informazioa igortzeko formularioak, trazabilitateari buruzko datuen erregistroak eta kontrako ondorio eta erre-akzioak hautemateko eta komunikatzeko sistemak. Behin programa hori ezarrita dagoenean, zentro guztiei aholkatuko zaie beren kalitate-programak egokitu ditzaten Estatuko Transplanteen Erakundeak ezartzen duen horretara.

Organo- eta ehun-emaielen baimen informatuari buruzko informazio guztia Historia Klinikoan gordetzen da.

Osasun Departamentuak beharrezkoak diren ikuskapenak egiten ditu, zentroek jarduera horiek aurrera eraman ahal izateko eskatzen dituzten baimenak eman eta berritze aldera.

Zentro publiko batzuetako material frigorifikoa eta informatikoa berritu da. Zortzigarren galderaren erantzunean azaltzen denez, Foru Komunitateak Andaluzia eta Kataluniarekin batera parte har-

tzen du Estatuko Transplanteen Erakundea egiten ari den informazio sisteman.

Osasun Departamentuak beharrezkoak diren ikuskapenak egiten ditu, zentroek jarduera horiek aurrera eraman ahal izateko eskatzen dituzten baimenak eman eta berritze aldera.

Osasun Departamentuan dagoen informazioan ez dira jasotzen zentro bakoitzak bere borondatez lortzen dituen kreditazioak.

Ehun-bankuen Elkarteak erakunde profesional bat da, eta haren irizpideak ezin eska daitezke ikuskapenaren eta baimenaren ikuspuntutik.

6.- Hona zentroetako arduradun teknikoak:

#### **Nafarroako Ospitalea:**

- Ehun-bankua eta ehun osteotendinosoaren txertaketa: Ana Pilar Lanz doktorea.
- Bihotz-balbulen txertaketa: Ignacio Moriones doktorea.
- Hezur-muinaren autotransplantea: María Josefa Uriz doktorea.
- Kornea-txertaketa eta mintz amniotikoaren erabilera: José Andonegui doktorea.
- Txertaketa baskularra: Carlos Aranzadi doktorea.

#### **Bideko Ama Birjina Ospitalea:**

- Kornea-bankua: Andrés Garralda doktorea.
- Kornea-txertaketa eta mintz amniotikoaren erabilera: Andrés Garralda doktorea.

#### **García Orcoyen Ospitalea:**

- Ehun osteotendinosoaren txertaketa: Javier Martínez Morentín doktorea.

#### **Ubarmin Klinika:**

- Ehun osteotendinosoaren bankua eta txertaketa: Tomás Izco doktorea.

#### **Reina Sofía Ospitalea:**

- Ehun osteotendinosoaren txertaketa: Javier Catalán doktorea.

#### **Nafarroako Klinika Unibertsitarioa:**

- Bihotz-balbulen eta ehun baskularren bankua: Jesús María Herreros González doktorea.
- Bihotz-balbulen eta ehun baskularren txertaketa: Jesús María Herreros González doktorea.
- Ehun osteotendinosoaren bankua: Miguel San Julián doktorea.

- Ehun osteotendinosoaren txertaketa: Miguel San Julián doktorea.

- Begi-globoko ehunaren bankua: Javier Moreno Montañés doktorea.

- Begi-globoko ehunaren txertaketa: Javier Moreno Montañés doktorea.

- Mintz amniotikoaren bankua: Javier Moreno Montañés doktorea.

- Mintz amniotikoaren erabilera: Javier Moreno Montañés doktorea.

- Autotxertaketa eta txertaketa alogenikoa, guraso hematopoietikoa dituzten emaleena: José Rifón Roca doktorea.

#### **San Miguel Klinika:**

- Ehun osteotendinosoaren txertaketa: Yolanda Yoldi doktorea.

- Korneak txertatzea: Yolanda Yoldi doktorea.

#### **San Juan de Dios Klinika:**

- Ehun osteotendinosoaren txertaketa: Julio de Pablos doktorea.

7.- Nafarroan baimenduta dauden ehun-bankuak beren protokoloa prestatzen dute ehunak lortu, ebaluatu, prozesatu, gorde eta banatzeko, 1301/2006 Errege Dekretuan ezarritakoari jarraituz.

Nafarroako Ospitaleak, Bideko Ama Birjina Ospitaleak, Ubarmin Klinikak eta Nafarroako Klinika Unibertsitarioak emaleen serum-laginen artxibategia dute, eta derrigortuta daude lagin horiek hamar urtez gutxienez gordetzera, azken aplikazio klinikoa egiten denetik edo horien piezak edo zelulak iraungitzen direnetik.

Serotekak mantentzeaz arduratzen dira kasuan kasuko laborategietako arduradunak edo ospitaleko transplanteen koordinatzailea, Bideko Ama Birjina Ospitalean gertatzen den moduan.

Kontzertu bat dago Bartzelonako odol- eta ehun-bankuarekin, zilbor-hesteko odola gordetzeko (horren kopia erantsi da). Maiz, Nafarroako Foru Komunitateak korneak helarazten dizkie eskatzen dituzten autonomia erkidegoei, betiere halakoan eskuragarritasunik baldin badago. Hori da Foru Komunitateari gehien eskatzen zaion ehuna.

Beste autonomia erkidego batzuetako ehunei dagokienez, badago zentzoren bat oso noizean behin Nafarroatik kanpoko bankuetatik ekarritako piezaren bat erabili duena.

8.- Ehun-banku bakoitzak erregistro eguneratua dauka, aukera ematen duena gordetako ehunen eskuragarritasuna ezagutzeko. Estatuko Transplanteen Erakundea informazio sistema bat egiten eta ezartzen ari da Espainia osorako, aipaturiko Errege Dekretuaren V. kapituluaren informazio, jarraipen eta biozaintetari buruz ezartzen dena betetzeko. Nafarroako Foru Komunitatea sistema horren ezarpenean parte-hartze aktiboa izaten ari diren hiru komunitateetako bat da. Sistema horrek aukera emanen du gordetako ehunei buruzko informazio zentralizatua eta eguneratua izateko (denbora errealean).

9.- Estatuko Transplanteen Erakundeak kodifikazio sistema bakar eta derrigorrezkoa proposatuko du, eta bateragarria izan beharko du Europar Batasuneko gainerako kideek dituztenekin. Trazabilitateari dagokionez, giza ehun eta zelula guztien jarraipen sistema ezarriko da, lortzen direnetik aplikatzen diren arte. Gauza bera esan daiteke biozainteta sistemari dagokionez.

Emalearen dokumentazio klinikoaren segurtasun eta irisgarritasun baldintzetan gordetzen da, historia klinikoaren gainerako dokumentuak bezala, nahiz eta gaur egungo araudiaren arabera, 30 urtez gorde behar den gutxienez, erabilera kliniko egin ondoren. Osasunari buruzko datuak biltzen dituen dokumentazio guztia segurtasun-maila handiarekin gordetzen eta zaintzen da, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoari eta hori garatzen duen erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuari jarraikiz. Hala ere, bete egiten dira maiatzaren 6ko 11/2002 Foru Legeak ezartzen dituen baldintzak, zeinen bidez gaixoaren zenbait eskubide, hain zuzen ere bizia- ren gaineko aurretiazko borondateak egitekoa eta informazioa eta agiri klinikoak eskuratzekoa, arautzen diren. Hala, bermatu egiten da dokumentazio

klinikoaren informazioaren segurtasuna, osotasuna, kontserbazio egokia eta berreskurapena.

10.- Nafarroan organoak erauzteko baimena duten zentroek laginak bidaltzen dituzte Nafarroako Klinika Unibertsitarioan dagoen Histokonpatibilitate Laborategira, organoen transplanterako bateragarritasuna zehazteko. Laborategi hori da xede horretarako baimena duen erreferentzia-laborategi bakarra.

11.- 2004an, Osasun Departamentuak "Ikerketa Biomedikoko Zentroa" baimendu zuen. Horren baren dago ehun neurologikoen eta ehun neoplasi- koen banku bat (garun eta tumoreen bankua).

2007an, Klinika Unibertsitarioko Terapia Zelula- rreko Laborategia baimendu zen autotxertoak ekoizteko erakunde gisa.

"Clínica de Navarra" ikerketarako etika batzordeak giza zelula eta ehunekin eginiko entsegu batzuk ebaluatu eta onetsi ditu azken urteotan.

12.- Nafarroako Ehun-bankua sortzeko proiektua prestatzeko xedearekin, Talde Tekniko bat eratu zen 2000. urtean, Osasun zuzendari nagusi- ak emaniko ebazpenaren bidez. Taldearen lanak 2001ean eten ziren; taldeak ezin izan zuen azken txosten bat prestatu, eta harrezkero bere zeregi- nak bertan behera utzi zituen.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Errege- lamenduan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko ekainaren 5ean

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

(Oharra: aipatu eranskina foru parlamentari- en eskura dago 7-08/PES-00164 zenbakiko espedien- tean eta web helbide honetan:

<http://actividad.parlamento-navarra.es:8080/AgoraWeb/>

**Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak 2007an dirulaguntzarik edo inolako laguntzarik eman dion Fundación Navarra para la Diversificación Empresarial fundazioari eta, halaber, jakiteko asmorik duen aipatu fundazioari 2008an laguntzarik emateko.**

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du jakiteko Nafarroako Gobernuak 2007an dirulaguntzarik edo inolako laguntzarik eman dion Fundación Navarra para la Diversificación Empresarial fundazioari eta, halaber, jakiteko asmorik duen aipatu fundazioari 2008an laguntzarik emateko.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko maiatzaren 23ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko ekainaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Ángel Aguirrebengoa Imaz

jaunak galdera egin du Fundación Navarra para la Diversificación Empresarial izeneko fundazioari emandako dirulaguntza edo bestelako laguntzei buruz. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

2007. eta 2008. urteetan, Foru Komunitateko administrazioiko edo bere erakunde autonomoetako organo bakar batek ere ez dio dirulaguntzarik eman aipaturiko fundazioari, aurrekontu kontabilitatean dauden datuetatik erortzen denez. Alabaina, ezin da alde batera utzi, aplikatu beharreko arauei jarraikiz, fundazio hori urte honetan zehar onesten diren deialdietako dirulaguntzen onuradun izan ahal izatea.

Iruñean, 2008ko ekainaren 6an

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

<p><b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b>  <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b></p> <p>Urtebete ..... 47,00 euro  Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko ..... 1,25 »  Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko ..... 1,40 »</p>	<p><b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b>  <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b>  «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»  Navas de Tolosa, 1  31002 IRUÑA</p>
--	--